



Liburu honetan aurkezten diren ikerketa proiektuaren emaitzak hiru egile hauek talde lanaren dinamikan eraikitakoak dira. Orain arte aurkeztu direnak eta hiruron izenean argitaratzen den hau ikerketa prozesu zabal eta luzearen fruitu dira.

Liburu honetan curriculuma eta edukiaren azterketa lantzen dira, egile desberdinek testuliburuari ematen dioten garrantzia azpimarratuz. Testuliburuok eskolako lanerako XIX. mendean hartzen dute benetako garrantzia, gaur arte dirauena. Testuliburuak euskaraz argitaratu direnean ere izan dituzte aldaketak, hala edukiz nola itxuraz. Euskaraz argitaratu eta erabili denaren azterketa egiterakoan, guk XX. mendea hartzen dugu ildotzat, hiru epe edo aro finkatzeko: 1876-1974; 1975-1990; 1991-2000.

Emaitzetan, testuliburuetakoa edukiak ingurune hurbilarekiko agertzen duten lotura erakusten da, gehien zaintzen dutenak Euskal Herrian argitaratuak direla frogatuz. Euskal Herriari gehien lotzen zaizkion edukiak, bestalde, paisaiak dira. Mapak dira, ostera, testuinguru estatalari lotuta erabiltzen direnak eta mapak lurralde osoa islatzen duten bitartean, paisaiek zati erakusgarriak baino ez dituzte islatzen. Testuinguru soziokulturala darabiltenean, itxurari ematen zaio garrantzia, paisaiak zein mapa fisikoak erakutsiz, eta erakutsi ere, alde kulturala, ekonomikoa eta gainontzeko guztiak albo batera utziz.

Euskal Curriculuma ala Euskal Dimentsioa Curriculumean? Dilema honen aurrean, hemen datuak eskaintzen dira, datu zehatzak, bidea ibilian egiten dela erakusteko, hezkuntza sistemak argitzeke dituen arazoetarako argitasun fidagarria eskaintzeko.



ISBN 849332709-3



9 788493 327095